

ABESTIA

Ana Zubiaurre Iriondo

Elgoibar

Ezinezkoa da. Ezin dut, ezin dut, EZIN DUT
EZER GOGORATUUUUU!!!!

Orain dela aste batzuk hitz hauetxek esan nituen garrasika. Horrela irakurrita ziur nago ez duzula imajinatzen zer dela eta esan nituen. Baina lasai, segituan jakingo duzu.

Pi, pi, pi, piii!!! –Nire iratzargailua zen, gorroto nuen, beti esnatzen ninduen ametseko zatirik ederrenean.

–Iratzargailu madarikatua –esan nion, entzungo balit bezala.

Beste aldietan baino indar handiagoz madarikatu nuen, eduki berri nuen amets hura beste guztietatik ezberdina izan baitzen. Denbora asko eta gau ugari neramatzan amets huraxe eduki nahian, eta orain, jada lortu nuela, berak, iratzargailuak, esnatu ninduen bukatzen utzi gabe. Ez zen bidezko. Sukaldera jaitsi nintzen gertatu berriari bueltak emanaz, amak “egun on” esan eta nire erantzunik jaso ez zuenean.

Berak ez zuen errurik, iratzargailuak baizik baina... momentu haietan ezin nuen ametsean besterik pentsatu.

Amak harrিতта ea zer gertatzen zitzaidan galdetu zidan, eta nik “ezer ere ez” lehor batez erantzun nion. Isilik geratu zen, nik, gaileta pare bat eta “Bi frutas” bat nola hartzen nituen begiratzen zuen bitartean, etxetik irten aurretik.

Aurreko eguberrietan, aitona Angelek inoiz entzun dudan berririk txarrena eman zidan. Gogoan dut alzheimerra zuela esan zidaneko eguna. Olentzerok hainbat umeren bihotzak pozten dituen eguna zen, nahiz eta nirekin horrela ez izan eta inork sekula eskatuko ez lukeen “opari” mingarria ekarri.

–Lea maitea, gauza garrantzitsu bat esan behar dizut.

–Esan aitonatxo, bota!

–Baina lehenengo zin egin gauza bat. Ez dut nahi gure artean beti izan den eta oraindik den harreman berezi hau desagertzerik ez apurtxo bat ete aldatzerik, ados?

–Ez noski, baina zergatik diozu hori?

–Begira laztana, hau esango dizut inoiz ezagutu dudan pertsonarik maitagarri eta adoretuena zarelako: Lehengoan medikuan izan nintzen, eta proba batzuk egin ostean nire barruan zerbait ez zihoala behar bezala antzeman zuten. Noski, medikuek gutxitan sartzan dute hanka eta nire

kasuan ere asmatu zuten. Alzheimerra nuela esan zidaten. Dakizunez, gaixotasun larria da eta denborarekin gure buruan borragoma izugarri baten antzeko zerbait eratu eta dugun guztia ezabatzen joaten da, den-dena ahazten dugun arte.

Nik ez nuen hitzik egiten, nire mihia gelditu egin zen. Hitz egiten ahaztu nuen momentu batez, ez, ordea, negar egiten. Nire malkoak, zorionez, gutxitan hartu behar izaten duten bidea topatu eta nire masailean behera erortzen hasi ziren. Niretzat hitzik esatea ezinezkoa zela ikustean aitonak jarraitu zuen, bere malkoek ere masaila gurutzatzen zuen bidetxoan aurrera egiten zuten bitartean.

–Lea, entzun iezadazu. Badakit zaila dela aitortu berri dizudana ulertzea, kosta egiten da, bai. Baina indartsuak izan behar gara, denok batera egon eta dakigun ondoen aurka egiten saiatu. Horretarako zure laguntza behar dut, ezinbestekoa zait.

Hitz haiek entzun nituen azkenak izan ziren, dena malkoz eta negarrez bete aurretik. Handik aurrerako egunak gogorrak izan ziren. Nire bizi-tzako gogorrenak. Egunero ikusten bainuen ama negarrez eta aita bera kontsolatzen eta hori gutxi balitz, aitonak geroz eta galdera inozoagoak egiten zizkidan. Nor zara? Zer da hori? Joango al gara parkera? Kanta iezadazu abesti bat, ezin dut lorik egin. Izan ere, borragoma lanean hasia zen, bere bizitza ezabatzen hasi zen.

Haurtzaroan zegoen, berriro ere umetako garaia bizitzen ari zen. Gure istorioak aldaketa bortitza jasan zuen, buelta eman zuen hobeto esanda, lehen ni bainintzen galderok egiten zizkiona, txikitan berarekin egoten nintzen egun haietan hain zuzen ere. Orain, ordea, bera bihurtu zen haur, nire biloba ezgauza. Eta nik... ezin nion eskatzen zidana eman: ez nintzen horrenbeste aldiz kantatu eta entzun nuen abestia, buruz nekiena gogoratzeko gai eta ezin nion neure buruari barkatu. Berak azken aldiz abesteko erregutu zidana eta negarrez hasitako gauak barrez amaitzea lortzen zuena. Elkarrekin abesten genuen abestia... joeeeee, zergatik niri !!!

Gogoratu beharra nuen, berak laster egingo zuen alde nire ondotik eta nik ezingo nion bere bizitza guztian eskatu didan gauza bakarra eman, berak niri eskatutako guzti-guztia eman ostean.

Nire gurasoek lanean eman ohi zuten egun guztia eta ez ziren etxeratzen gaueko ordu txikiak arte. Ordurako ia da haurtzaroan izan ohi ditugun amets koloretsu eta alaietan barneraturik egoten nintzen. Azken finean, baliteke aitona ordezkatzea nire gurasoen tokia. Egun guztia pasatzen nuen berarekin: ikastolara beraren eskutik joaten nintzen, baita parkera ere, goxoki dendara eta bakarrik joan ezin nintzen toki guztietara. Oraindik ere gogoan ditut beraren ondoran pasatako momentu ahaztezin guztiak: parke-

an neure ogitartekoa jaten nuen bitartean hurbiltzen zitzaizkigun usotxoei egindako kontuak, berak ipuin-kontalari bihurtu eta kontatzen zizkidan istorio zoragarriak, gelako antzerkietako bere parte-hartzeak, ezingo dut ahaztu “Txanogorritxu” antzeztu eta amonatxoarena egin zueneko... Munduko aitonarik onena nuen, bai horixe!

Egunero eskolara naraman autobusean sartu nintzen eta motxilan ea zerbait falta zitzaidan begiratu nuen. Ai ene! Historiako koadernoak ez zegoen! Beno, ia da autobusa martxan zen, ezin nuen ezer egin. Kanpoan hotza zegoen eta autobusaren leihoetako kristalak lurrin zuriz beteak zeuden, beraietatik haratago zegoena argi ikusten uzten ez zutelarik. Kalean zihoazen gainontzeko pertsonen begira jartzea erabaki nuen, ea norbait irribarrez ikusi eta nire aurpegian ere irribarrerik agertzen zen. Baina ez zen hala izan. Ikusi-ikusi nituen bai, baina bazirudien nire ahoak ahaztua zuela zer zen irribarre egitea.

Ezezagun haiei begiratzeaz aspertu nintzenen, zertan ari nintzen konturatu gabe, nire mugimenduen menpe ez nintzela, eskua leihoko kristalera joan zitzaidan. Bertan pausatzean kristal hotza sentitu nuen. Nire eskua bera bezalakoa, baina bat-batean kristal gainetik mugitzen hasi zen, indar bereziren batek gidatua bezala. Zirriborroak besterik ez zituen egiten, aitona eta

bion abestia zen, baina kanpoko argia ikusteaz bat, ikaratu eta berriro ere barruan harrapatuta geratzen zen. Kristal osoa betea nuen, ezer idatzi gabe institutura iritsi nintzenean.

Itxaron, hura ez zen berria niretzat. Nire koa-dernoren bateko orrietan ere berdina gertatu izan zitzaidan, Historiakoa, hain zuzen ere. Gogoan dut, bai, nola behin etxeko lanak egiten ari nintzela, ospitalean aitona bisitatzeko egon ondoren, eskuan nuen arkatza paperera itsatsi eta hizkiak idazten hasi zenekoa. Zentzurik gabeko hitzak, edo nik behintzat ez nien inongo logi- karik aurkitzen. Hainbat irudi ere agertzen ziren, baina hauek ere ez zidaten ezer esaten. Momentu hartan ama sartu zen logelan eta zer- baitek hura ezkutatzera bultzatu ninduen, ez nuen nahi amak ikusterik. Zer pentsatuko zuen nire familiak nitaz? Horren gauza berezia ahaztu izanak? Lotsagarria zen. Beraz logelatik irten nintzen ezer gertatuko ez balitz bezala. Eta damututa nago, atera nahi nuen abestiari argia erakusteko gakoa nire ama izan baitzitekeen.

Orduak inoiz baino polikiago pasa zitzaizkidan institutuan. Ez, ordea, nire buruko pentsamen- duak, batetik bestera korrika baitzebiltzan irudi, esaldi, hizki, irribarre, sekretu... eta bizi izan nituen beste zenbait gauza. Baina abestirik ez. Agian nire buruko txokorik ezkutuenean gordea nuen eta ez zuen ateratzerik nahi. Nik, bai,

ordea. Beraren ondoan eseri eta lo hartzen zuen bitartean abesteko behar nuen, berak nirekin egin ohi zuen bezalaxe.

Gau hartan, afaltzeko orduan, aitak, amak eta hirurok inoiz baino isilago afaldu genuen. Nik, amaitzean, nire logelara nindoala, zerbait entzun nuen neure atzean, nire gurasoek esaten zidaten zerbait.

Ezin nuen esaten ari zirena ondo entzun, ez eta ulertu ere, hortaz poliki-poliki eman nuen haiei begira jartzeko. Inoiz entzun eta ikusi nuen ederrena izan zen hura: amak nire Historiako koadernoan zuen eskuan, abestia gogoratu nahian nenbilela ikus zitekeen orrietan irekita eta irribarrez begiratzen zidan. Seguru zirriborro haiek guztiak ezkutatzen saiatu arren, amak aurkitu eta berehala ulertu zuela zer gertatzen zitzaidan. Eta ez nenbilen oker.

–Laztana, ezin bazenuen gogoratu, hemen gaude gu zu laguntzeko, ez zenuen lotsatu beharrik, ez eta zure buruarekin BORROKATU beharrik. Gainera, abestirik gabe ere aitonaren ondoan zaude eta berak uzten gaituenean ere ez duzu ahaztuko. GERTAKIZUNEK INDAR handia baitute, eta ziur badaudela gogoratzen dituzun beste hainbat gauza. Hori da garrantzitsuena, denok SORTZEN GAREN ENBOR BERETIK SORTUKO BAITIRA BESTEAK, baina baita hil ere. Bera ez da haserretuko abesten ez badiozu eta ulertuko du.

Hor zegoen, hor dago, eta hor egongo da gakoa: amaren hitzotan!

–Ama, eraman nazazu ospitalera, mesedez.

–Baina Lea, orain oso berandu da.

–Mesedez!

–Ongi da, ongi da.

Aitona, ni naiz, Lea. Gogoratzen duzu abesti bat abesteko eskatu didazula, ezin zenuelako lorik egin? Ez? Beno, ez larritu eskatu didazun mesede bakarra betetzera nator, abestera.

“Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak, borroka hortan iraungo duten zubaitz-ardaska gazteak. Gertakizunen indar ta argiz gure ametsa arrazoi garbi egiztatuko dutenak...”